Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Fermin Larrea Ereño

Basauri, Bizkaia (1915-2010)

Aurkibidea

Biografia

Etxerre auzoko baserrian jaio zen. Ama Etxebarriko Kukullaga auzokoa zen eta aita Arizeko torrekoa. Bere emaztea Elexalde auzoko euskalduna zen. Sarritan egiten zuen euskaraz.

Zintak

BSR-011

- **Proiektua**: Basauriko euskararen azterketa linguistikoa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Data**: 1990-04-01
- **Iraupena**: 48 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Gisasola, Jaione
- **Emalea**: Arretxe, Jon

BSR-012

- **Proiektua**: Basauriko euskararen azterketa linguistikoa

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Data**: 1990-04-01
- **Iraupena**: 45 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Emalea**: Arretxe, Jon

BSR-050

- **Proiektua**: Basauriko euskararen azterketa linguistikoa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Data**: 1991-02-01
- **Iraupena**: 46 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Gisasola, Jaione
- **Emalea**: Arretxe, Jon

BSR-051

- **Proiektua**: Basauriko euskararen azterketa linguistikoa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Data**: 1991-02-01
- **Iraupena**: 47 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Gisasola, Jaione
- **Emalea**: Arretxe, Jon

BSR-073

- **Proiektua**: Basauriko euskararen azterketa linguistikoa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Data**: 1991-11-26
- **Iraupena**: 29 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Gisasola, Jaione
- **Emalea**: Arretxe, Jon

BSR-126

- **Proiektua**: Basauriko euskararen azterketa linguistikoa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Data**: 1992-01-01
- **Iraupena**: 3 min
- **Euskarria**: DVD
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea**: Arretxe, Jon

Pasarteak

1. Baserriko abereak

- **Erref**: BSR-011/002
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:01:15. **Bukatu**: 00:04:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Baserria non zegoen kontatzen du eta bertan izaten zituzten abereen inguruan dihardu.

2. Etxean beti euskaraz

- **Erref**: BSR-011/004
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:06:43. **Bukatu**: 00:09:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Euskaraz hitz egitea baserritarren kontua zelakoan, hitz egiteari utzi zioten askok. Ferminek seme-alabei euskaraz hitz egin izan die txikitatik eta etxean euskaraz hitz egin izan dute beti. Kalean, hala ere, gazteleraz hitz egiten omen dute.

3. Euskararen egoera gerraostean

- **Erref**: BSR-011/005
- **Iraupena**: 0:05:17. **Hasi**: 00:09:30. **Bukatu**: 00:14:47
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Inoiz ez diote seme-alabei euskaraz ez egiteko eskatu. Hala ere, gogoan du lagun batzuei gerraostean Bilbon euskaraz ezin zela hitz egin esan zietenekoa. Orozko aldean, eskolan euskaraz hitz egitearren umeak zigortzeko eraztunaren ordez txapa bat erabiltzen zutela kontatzen du.

4. Basauri inguruko euskara

- **Erref**: BSR-011/006
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:14:47. **Bukatu**: 00:16:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Ez du desberdintasun handirik ikusten inguruko herrietako euskarari dagokionez. Galdakaon egiten omen zen euskara gehien Fermin gazteagoa zenean.

Transkripzioa
- Zure euskerie nungua da? Zuk ze euskera iten dozu?
- Nik... etxien, hamen, etxean entzunekua.
- Bai. Etxien ezta? Zure... aite ta amari?
- A bai, bai, etxien.

- Eta aite ta ama nunguak ziren?
- Aite ba palaziokoa... Arizeko palaziokoa, ta ama Etxeberrikoa, Kukullagakoa.
- Kukullaga?
- Kukullagakoa. Ba zure...
- Tio bat daukot.
- Carlos. Bai. Neure aman lehengusue.
- A bai?
- Carlos, bai, nik entzuna daukot... Han dago oindiño basarrixe, ezta?
- Baserrie han dau, zera. Carlos bizi den lekuen teilatue ta... nire aman... bizi zen lekuen teilatuek in otsien. Zeuzer [...].
- Gurasoak be bi bakarrik ozan?
- Bai. Han ipinten dau, letreru baten, Kukullaga.
- Kukullaga.
- Kamiñoaz terrenoan dauena da [...] bizi zauena [...].
- Ta zuk ze, euskeran diferentziarik ikusten dozu Etxerbarritik Arizera hizkera aldetik edo?
- Ez, ez, ez. Hamen... hemen inguruen ez. Ya urteten dozu Txorierritik ta horti bai. Hortik ya sartuten de apurtxu bet... nik eduki nendun iziko bat Zamudiokoa, ta lehenengotan... zela esango dotzuten... dasbardiñe.
- Bai?
- Dasbardiñe. Etortzen hemen, Galdakao [...] Etxebarri ta honik, inguru... gu ibiltzen garen lekuen dana berdin dau, bardin-bardin.
- Bardin-bardin. Hemen ingurukoa bardin-bardin. Ta gero horko Zeberio aldetik ta hortik, ta Zornotzan be, hemengo modukoa, dana bardiñe. Igual gauzetxun bat igual ez du eukin baie...
- Ta gehio non iten zan euskeraz hamen inguruko herrixetan?
- Hemen Galdakaon iten zan gehiena. Galdakaon iten zan dena.

5. Zornotzarrei barre egiten zieten gernikarrek

- **Erref**: BSR-011/008
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:17:35. **Bukatu**: 00:18:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:
Ferminekin lanean jarduten zuten Zornotzarrei gernikarrek barre egiten zietela gogoratzen du.

Transkripzioa
- Zornotzen esaten deutsut.
- Nik berriz, Zorrontzan beti.
- Bai, bai, bai.
- Hango jentik holan esaten dau e, Zorrontza.
- Zorrontza, Zorrontza.
- Nik beti entzun dot Zorrontza.
- Es que egiten da Zornotza... holan...
- Bai baie... Zorrontza. Guk beti.
- Gugez egon zan Gernikeko bat, lanean hemen Basconian, ta Zornotzako beste bat, ta Gernikekoak esaten otsan "Zorrontzarra jan bedarra, guk euskera jan parra-parra".
- Badakizue, hori, zera... iten zan ta.

- Baie Zorrontza esaten otsen beti. Ni gero, aite difuntuen eta honan zerana ta horrik Zornotzako aititek izan ziren Zornotzakoak, Larreak dire...gure Larreatarrak dire Zornotzakoak. Ta beti Zorrontza.

6. Aitona Zornotzakoa

- **Erref**: BSR-011/009
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:18:30. **Bukatu**: 00:19:12
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Larrea abizena Zornotzatik datorrela kontatzen du Ferminek. Aitona zuen bertakoa baina Basaurira ezkondu zela dio.

Transkripzioa
- Ba zuen familikoak, zuk Larrea apellidue dekozu ezta?
- Bai.
- Ta hori nondik dator?
- Zornotzatik.
- A Zornotzatik?
- Zornotzatik... Arizera etorri zen ala?
- Bai. Zornotaztik ekarri euskun aitek... hona aitite gure... aitite...
- Bai, ta Basaurira ezkondu zen.
- Ta zure aite jaio, nun jaio zan?
- Palazioan [...] Pascual ere...
- Bai.
- Bai euskeria, hemengoa eukingo aurien ezta?
- Bai, bai.
- Aititek igual gehiago Zornotzako euskerie.
- Ez, baie nork jakin e? Ez dau...

7. Euskalkia vs. Euskara batua

- **Erref**: BSR-011/010
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:19:12. **Bukatu**: 00:22:57
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Hitz asko berriak direla iruditzen zaio. Aitari bestelako hitzak entzuten zizkiola gogoratzen du, egun erabiltzen ez direnak. Euskara batua eta bizkaierari buruzko iritzia ematen du Ferminek.

8. "Ogie" edo "ogiye"

- **Erref**: BSR-011/012
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:23:50. **Bukatu**: 00:25:39
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Ferminek ogi esaten du gehienetan. Donostiara joan eta bertan gipuzkoarrekin gertatutako anekdota bat kontatzen du.

9. Mutilzahar eta neskazahar ugari

- **Erref**: BSR-011/014
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:26:34. **Bukatu**: 00:29:39
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkongabeak

Laburpena:
Neskazahar eta mutilzahar asko omen zegoen Orozko eta Zeberio aldean. Baserritar asko zegoelako izan zitekeela iruditzen zaio Fermini. Lan asko egin behar izaten zenez, emakumeek ez omen zuten baserritarrarekin ezkondu nahi izaten.

10. Baserrian kalean baino gustorago

- **Erref**: BSR-011/016
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:32:14. **Bukatu**: 00:35:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Fermin baserrian eta kalean bizi izan da. Baserriko bizimodua politagoa iruditzen zaio. Gustura ibiltzen zen soroan lanean baina astuna dela iruditzen zaio.

11. Baserrian beti dago zeregina

- **Erref**: BSR-011/017
- **Iraupena**: 0:04:54. **Hasi**: 00:35:00. **Bukatu**: 00:39:54
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:
Urtaroaren arabera, lanak desberdinak izaten dira baserrian. Udaberrian, udan edo neguan hala ere beti dago zeregina baratze zein soroan. Sagarrak, melokotoiak, madariak eta mota askotako fruta-arbolak izan zituen Ferminek.

12. Gose garaian lapurrak baratzean

- **Erref**: BSR-011/018
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:39:54. **Bukatu**: 00:42:13
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gaztea zela, sagarrak lapurtzeko ohitura handia izaten zuten umeek. Hain zuzen ere, 1940-41 urte bitartean gosete handia egon zela gogoratzen du. Jendea baratzera lapurretara sartu eta zer esan ez zekiela geratzen zela dio Ferminek.

13. Txarriboda

- **Erref**: BSR-011/019
- **Iraupena**: 0:03:31. **Hasi**: 00:42:13. **Bukatu**: 00:45:44
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Baserrian egindako azken txarriboda Fermin ezkondu zen urtean izan omen zen. Txerrikiak osasunarentzat kaltegarriak zirela entzuten hasi zirenean utzi zioten txerria hiltzeari. Familia osoa biltzen zela gogoan dauka eta gustura aritzen zela kontatzen du Ferminek.

14. Umetako jolasak

- **Erref**: BSR-011/020
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:45:44. **Bukatu**: 00:48:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Kaniketan, futbolean eta bestelako jolasetan ibiltzen zen Fermin umetan. Gaur egun, gehienak galduta daudela iruditzen zaio naiz eta neskak sokasaltoan aldika ikusten dituen.

15. Basauriko auzoko euskaldunak

- **Erref**: BSR-050/003
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:21:58. **Bukatu**: 00:23:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Ferminek Basauriko auzoko euskaldunak aipatzen ditu.

16. "Euskara kalera urten behar dogu"

- **Erref**: BSR-051/003
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:22:03. **Bukatu**: 00:22:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Ferminen iritziz, Eibarren euskararen egoera hobetu dadin, umeek kalean euren arten erabiltzea ezinbestekoa da.

Transkripzioa
- Baie kalera urten bar dogu, ostantzen ez dau balio. Ez badou urteiten kalera, kalean ez badau ume artien... ez dau...
- Baia gatza da kalean itea ze agian badaude lau edo bost ume eta haietako batek ez badaki... hori da...
- Klaro. gero, esaten dute "es falta de educación". Coño, es falta de educación, zer? Zer?
- Bai, hori da.
- Klaro. Ba ikisi, zergeittik ez dozu ikisten zuk?
- Bai, bai.
- Ta horregaiti galdu de hemen e, galdu de hori, zera, beti "kanpoko honek ez daki ta guazen iten oin erdera". Baie hor Gipuzkua aldien ta hortikan kendu aurien euskerie, han erdaldune sartu bazan derrigor eukin zittuen euskeraz ze ezpabe geratuko zan bazterrien.
- Klaro, holan izin behar da.
- Es que holan izin behar da.

17. Auzokoak eta euskara

- **Erref**: BSR-073/002
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:00:52. **Bukatu**: 00:01:49
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Fermin auzoko euskaldunez eta euskararen egoeraz ari da pasarte honetan.

18. Etxerre auzoa eta inguruko baserriak

- **Erref**: BSR-126/001
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Etxerre auzoa nolakoa zen eta lehen ze baserri zeuden azaltzen du.

Transkripzioa
- Zer Fermin, hau lehen ez zan izin holangua, ezta?
- Ez, antzirik be ez. Lehen baserrik egon zien emen, nire osteien baserriek egon ziren leheno. Oin danak... hau be burniye barrie da. Hau're mile bederautze hogeien edo hogeite bien iñe dagoz etxe hau e. Ostantzien bestela, egon zan gure baserrie zubien azpien. Ta gero egon zien beste baserri txikiaguak... Leandro bizi zen, Leandro aurrerau Zurrunbillo ta horreik, ta gero egon zien hiru, bizi zienan Bengoa baten, Urzelai beste baten ta Elorriaga bestiekin. Baserri baten hiru bizi zien, ta gero aurrerago egon zan Astigarragan, Astigarragan zera, etxea. Ta gero aurrerau, jun zen zera kazeteriena esaten ziñoen, han trenak barrerak ipini...

19. Sakamantekasen beldur

- **Erref**: BSR-126/002
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:00:50. **Bukatu**: 00:01:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Lehen gauez irteteko beldurra izaten zuten, "Sakamantekas" ibiltzen zela eta. Behin ilundu ostean iturrira joan beharra izan zuten anaiak eta biek; gautxoriren baten zaratarekin beldurtuta, arineketan itzuli ziren etxera.

Transkripzioa
- Ta oin, joe, jende asko bizi da ta hori, baie, lehen iturrire joateko be bildurrez, ezta?
- Joe hemen gaubez ibiltzeko bildurre, sakamantekas oten zin ta...
- Zer zan hori, sakamantekas?
- Sakamantekas esaten otsuen, ba ez dakit ba. Bildurre sartuteko sakamantekas egoten zela. Ta baten gure aite difuntuek beti ure ekarri beharra, afalduteko ure freskoa. Ta baten etorten da zortzi eta erdietan egoan afaltzeko ta, "ure ekarri dozu?" "ez" bale ni [...], ta bale nebak, biok, bata farolagaz ta bestie hierroagaz. Ta bagoaz iturrire, ta handik... farolagaz ta zera, nire anakie hierroagaz, ta baten [...] ta han gautxorin bat "brrr" iten, han ta gure sokorroe! Txalupe [...] baie zapatak lotu be ez, ganetik dena! Anaiek hierroa bota osten hankartera, sokorrotik! Ta hurroko eunien auzo guztiek a ver zer pasau zen!

20. Antzinako kontuak

- **Erref**: BSR-126/003
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:01:58. **Bukatu**: 00:03:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
"Arizko faroa", bertatik pasatzeko beldurra izaten zuen lehen jendeak. Antzinako kontuak. Bide-lapurrak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-14

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com